

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1992ko Apirilak 23, 147. zenbakia

ARKOk argitaratua Udalaren laguntzaz



**AGUSTIN
AZKOAGA**
Lehengo Aste
Santuen memoria

Ibai-Arte

Erdikaldeko merkatariaiek
elkarturik

Joseba



ERAMAZU.

1.323.300 PTAtik hasita

Clio **S** 92 c.v

Orain, 5 atekoa ere bai.

MECA, S.A.

ARRASATE

M

oda? Zer da moda? Urta-roak aurreratzen dituen tresna komertziala? Jende guztia neurri batzuren barruan mugitzera behar-tzen duen joera? Soberan dauden tela zaharrak berri bihurtu eta jasan ezinezko erakartasunez jaxten dituen zerbait? Edo...

Eta moda jainkariak? Aurrez aipatutako guztia begien aurrean jartzen digun ikuskizuna? Ikasbi-daiak ordaindu ahal izateko



Jabier

dirua ateratzeko balio duen zerbait? Pertsona arrunten mugimendu arruntak arrarotu eta koordinatuz ikusgarritasuna lortzen

duen espektakulua? Lilura sortzeko fokoez, musikaz, eta gorputz gazteen bizkor-tasunaz baliatzen den amu salgarria? Edo...

“BELAUNALDI GAZTEA” III. Argazki lehiaketa

• Partehartzaileak:
14-35 urte bitartekoak.

• Zuribeltz nahiz koloretan.

• Sariak:


1. 60.000 PTA

2. 40.000 PTA

3. 30.000 PTA

Akzesita: 20.000 PTA

Lanak aurkezteko epea:
urriak 2



Jabier Ozaeta

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

ARKO. Arrasate Komunikabideak-AED

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.

Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon.

Publizitatea eta harpidetzak:

Kepa Oriden

Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jon Mujika, Karnele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz, Atalaitaikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon Andueza, Udalako Ingurugiroko Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertoeskola.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 5.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Bilioi bat pezeta

San Petersburgo eta Moskuren arteko trenbidea kapital haundiari esker egin ahal izan zen. Zuzendari, inspektore, injineru eta abarren ustelkeria hain garai eta sustraitua zegoen, non diru jarioak ez zeukan amaierarik hainbeste "goseti" asetzeko. Enplegatu publikoak oso gaizki ordainduta zeudela zen aitzakia, hainbeste iruzur eta lapurketaren aurrean itsuarena egiteko.

Behin, Persiako enbaxadoreak bisita bat egin zion Errusiako Tsar Gorenari eta honek Moskutik zeharko txango bat eratu zuen, hiriko punturik ikusgarrietatik, hain zuzen ere enbaxadoreari ahalik eta zirrarak sakonena eragiteko. Mentchikoff printzeak lagundu zien bi agintariei ibilaldi hartan. Enbaxadoreak elize-tako kupula urrezatuak, granitozko zutabeak, ehundaka saltoki zoragarri eta erakutsi zizkieten gainerako bitxikeria erakargarriak ohizko eki-indiferentziaz epaitu zituen: ez zirudien ezertaz harritzen zenik.

Errusiako Tsar Gorena haserre bizian zegoen, persiarrari zer azal ote ziezaioketen asmatu ezinik eta, burumakur eta izpiritu ilunez, Mentchikoff printzeari galdetu zion nola demontre irten zitezkeen estualdi desatsegin hartatik. Printzeak bereha-

la eskaini zion irtenbidea: "Bai, jaun txit argia, erakutsiozu San Petersburgo eta Moskuren arteko trenbidearen kostoa".

Primeran datorkit istorio hori Sevillako Expo-92 deritzanean gastatu eta oraindik gastatuko denari buruzko nire harridura aurkezteko: bilioi bat pezeta, bata bestearen gainean, xahutu omen dira erakusketa antolatzeke!! Zertan inbertitu eta, haizeak bezala, urtearen amaierak "bizitza" hobera eramango duen parafernalia merkean. Izan ere, inork ez baitu pentsatu behar bilioi horrek ezelako uzta emaritsurik jasoko duenik. Eta inork aurreko baieztapenaren gaineko dudarik baleuko, dagoeneko Andaluzia osoan nabaritzen hasi den ekonomi-atzerakada izugarria ipiniko nioke frogaz bezala. Eta hasi, besterik ez da egin.

Eusko Jaurlaritza ere bidaiatu da Sevillara. Joseba Arregiren esanetara —"Estatu proiektua izanik"— ezin zitekeen kanpoan gera. "Merezi du egoteak" zioen Kultura Sailburuak inaugurazio egunean. Baliteke; dena den, azkenik -balizko ikusliarren baitan gehien harriztuko duenapabilioia kostatutako mila eta bostehun milioietako zifra ez ote den izango beldur nago. Moskun bezala.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Memesa
79 42 22



Parlance

EE.BB.

- Ikasi ingelesa "rancho" amerikar batean.
- Gazte eta helduentzako ikastaroak Carolina del Norte famili-giro sanoan.

Informazioa: Ferrerías, 11 etxabea.

Tfnoa: 77 06 83



Parlance

IRLANDA

- Ingeleseko ikastaroak eta kirola gazte eta helduentzat.
- Arrasatek bertatik lagunduta.
- Familia bikainak.

Informazioa: Ferrerías, 11 etxabea.

Tfnoa: 77 06 83



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84


**MUXIBAR
TABERNA**

Ezin hoberik
inguruan topatu!

Bizkaia Etorb.
Tfnoa: 79 09 75
ARRASATE

**ARAMAIO
okindegia**

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46



Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

**Gatzako Udalak bere haritzak
saldu ditu**

Udaberria sanetaraino sartu zaigu eta pozik bizitzeko bada ere, Udaberriak ekarritako berri txar bat salatu nahi nuke hemen.

Dorletako Amabirgina dagoen lekutik gorutza hartuta, Gatzagako Udaletxeak daukan terreno batetaraino heltzen gara, harezti haundi bat. Orainago artean, birigarroek bere ahalmenik haundienek kantatu izan dute bertan, basoko gainontzeko animaliei lorik egiten ez uzteko tamainan. Orainago artean, kattamixarrak, kattagorriak eta kattajinetak jolastu izan dira lurreko hosto artean. Orainago artean, harrotasunez begiratzten nion arbolarteari, pentsatuz, ha baino haritz-baso hobarik ez zegoela geure Euskal Herrian. Betik, baina orainago artean, pentsatu izan dut han zegoena, naturaren indar erakusketa bat zela bertaratua txunditu eta

konkistetako, baina...


Orainago, haritz-baso hura, mieztu egin dute!

Diru kopuru haundiak mugitu direla entzun da, 40, 60 milioi, baina bortxaketa honen aurrean inork ez du ahotsik sendotu/altxatu alderantziz! birigarroak ez du hain ozenki kantatzen eta kata guztiek moztutako aritz ipurdietan negar egiten dute.

Harrez gero, basoko basajaunak egunero galdetzen dio larrastarroari ea gizakiak noiz utziko dizkion terreno sail batzu naturari, berau, bere osotasunean garatu dadin, edo akaso gizakiak lur guztiaren erabileraren beharra dauka bizitzeko?

Galdera hauen aurrean, hontzari ere ondo iruditzen zaio gizakiek naturari tributu bat pagatu behar izana. Zutirik gelditu direnak behintzat, bertan jarrai dezaten ohiuka ari da basoko biztanlegoa. Eh? Gatzagako Udala!

J. O. E.



Agur eta eskerrikasko

Orain arte administrazioaz eta harpidetzeta arduratu izan dena **Amaia Sanz Moreno** izan da Arrasate Press eta ATBn. Aurrerantzean ez dugu gure artean izango. Zorte on eta eskerrikasko, Amaia.

**comercial
san juan**

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

**hikein
MARKO-JARTZEAK**

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

Zer erizten langabeziaren lege berriari?




Kontxi Pino
(Etxekoandrea)

Ez dut zehazki lege horren edukia ezagutzen, baina berez lan aukerak gutxi dira, eta gainera prestazioak gutxitzen badira... Oso gaizki iruditzen zait.



Iñaki Crespo
(Garraiolaria)

Jendea gehiago arduratuko da duen lana zaintzeko. Ni autonomia naizenez, ez dit asko eragiten horrek. Sindikatuen kejak ere hor daude.



Felix Gordejuela
(Proiektugilea)

Gauzak aurrez jarrita datozkigu. Langabezia gehituaz doanez, neurri batzuk jartzea beharrezkoa izango da. Printzipioz ondo dago.




Arantxa Etxebarria
(Langilea)

Ez dut gauza askorik entzun, ez dut informazio zehatzik ere. Ez dakit...



Nerea Pagalday
(Ikaslea)

Neurri hauekin ez dira konponduko orain arteko arazoak. Aukerak murriztu egiten badira, gauzek txarre-
ra joko dute.



Basilio Tena
(Langabetua)

Urtebeteko kontratuak egiten badituzte ondo, baina bestela gosez hilko gara. Lau urte daramat langabezian eta hori ezin da inorentzat ona izan.

Famili eta Gizarte Heziketarako Zentrua EKINTZAK

Gipuzkoa-Donostia Kutzaren Gizarte-Ekintza



kutxa



• **Goizez (9.00-12.00)**
"Emakumea eta autoenplegua"

• **Arratsaldez (15.30-21.00)**
Eskulan tailerra: Patroigintza eta jantzigintza.
Sukaldaritza. Psikologia-Hezkuntza pertsonala.
Puntua eta gakorratza (Gantxiloa).
Filosofia ikastaroa. Marrazki eta pintura.
Gitarra ikastaroa. Tertulia eta hitzaldi-solasaldiak.

Hasiera: apirilaren 27an
INFORMA ZAITEZ!!

Sta Teresa, 12 Tfnoa: 79 04 59 (Arratsaldez) ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak	45 87 44
--------------------------------	----------

UDALTAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTEKONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------------	----------



24

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "El cabo del miedo" (5-7.30-10).
- Famili eta Gizarte Heziketarako zentruan sukaldaritza eta eskulan ikastaroak, 6.30etatik aurrera.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

25

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "El cabo del miedo" (5-7.30-10)
- Umeentzako bideo-emanaldia: "Batman", Monterronen arratsaldeko 4.30etan.
- Altamirako jaiak.
- Urra eta Irazolari omenaldia. Uribarriko elkarteak. 9etan.
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

26

IGANDEA

- Zinea: Alai: "El cabo del miedo" (5-7.30-10)
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

27

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "El cabo del miedo" (7-9.30)
- Publizitatea eta kontsumoari buruzko ikastaroa, San Viatorren arratsaldeko 5.30etan.
- Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina.

28

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "El cabo del miedo" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

29

ASTEAZKENA

- Kontzertua, Carlos Mena kontzertatzen eta Javier Sarasua klabearen eskutik, Pleno Aretoan arratsaldeko 7.30etan.
- Hitzaldia: "Soldaduzka, obrezioa eta insumisioa", arratsaldeko 6.30etan Eskola Politeknikoko aretoan.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

30

OSTEGUNA

- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

Kirol Agenda

Futbola

- Emakumezko Mondra eta Aretxabaletako taldeen arteko partidua, igandean goizeko 10.30etan, Atxabalpen.

Futbito

- Zaldibarko Futbito Txapelketako erdifikalaka, larunbata eta igandean goizean hamaiketatik aurrera.

Eskubaloia

- Jubenil mailako partidua igandean Arrasate - Hondarribia, eguerdiko hamabietan.

Liburu berriak


- **Monterrongo liburute-giko liburu berriak**
- Literatura
 - Mateo Diez, Luis: "El expediente del naufrago"
 - Berger, John: "Una vez en Europa" (nobela)
 - Doblin, Alfred: "Los de Lobenstein viajan a Bohemia" (nobela)
 - Marias, Javier: "Corazon tan blanco" (nobela)
 - Matthiesesn, Peter: "Jugando en los campos del Señor" (nobela)
 - Vassalli, Sebastiano: "El oro del mundo" (nobela)
 - Drabble Margaret: "El camino radiante" (nobela)
- Beste batzuk
 - Guia didactica para una educacion no sexista
 - Tiempo libre y naturaleza: "Manual del monitor"
 - Frith, Uta: "Autismo"
 - "The earth works group": 50 cosas que los niños pueden hacer para salvar la Tierra
 - Kierkegaard, Soren: "Diario de un seductor"
 - Sadaba, Javier: "Saber vivir"

Hitzaldiak

• Soldaduzka

Datorren 29, asteazkenean, soldaduzka, objezioa eta insumisio gaiak aztertuko dira Eskola Politeknikoko Areto Nagusian arratsaldeko 6.30etan izango den hitzaldian. Hizlariak Arrasateko Intsumisio Bulegoko arduradunak izango dira.





Argazki-lehiaketa

"Belaunaldi gaztea" gaiarekin

Udaleko Gazte Zerbitzuak antolatuturik martxan da da-goeneko "Belaunaldi Gaztea" argazki-lehiaketa, 14tik 35 urte arterarteko gazteei zuzendutako lehiaketa. Ohi denez, lanak sobre itxi batean eta lemapean aurkeztu beharko dira Udaletxeko Gazte Zerbitzuan, urriaren 2a baino lehen.

Lehiaketara gehienbat, kolorez zein zuri-beltzezko hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu partaide bakoitzak eta gaia izenburuan adierazten den "Belaunaldi Gaztea" izango da. Lanak aurkezteko epea urriaren 2an bukatzen bada, epaimahaiaren erabakia urriaren 9an ezagutaraziko da, arratsaldeko 7etan Monterronen. Lehiaketaren irabazleak 60.000 PTako saria eramango du, bigarrenak 40.000 PTakoa eta hirugarrenak 30.000koa. Aurkeztutako argazki guztiekin urriaren 9tik 18ra erakusketa egingo da Monterronen.

Jaiak

• Altamirako jaiak

Bihar larunbata Altamira auzoko jaien ospakizunak burutuko dira. Goizeko hamar t'erdietan, jaietako hasiera emateko, suziriak bota eta dultzainariekin kalejira egingo da, ondoren haur jolasen txanda izango da. Haurren jolasak bukatu eta gero auzoko taberna irekiko da, eguerdi aldera. Arratsaldean, bostetan gutxi gora behera, berriz suziriak jaurtiko dira eta ordu berean yoga saio bat burutuko da. Ondoren, haurrentzat marrazki lehiaketa eta gero txokolatada.

Arratsaldeko 7etan, berriz, San Frantzisko elizan meza na-

gusia. Jaietako bukaera emateko, gauean, hamarretatik aurrera Txinparta taldearekin nahi dutenek dantza egiteko aukera izango dute.

• Urra eta Irazolari omenaldia

Bigarren mailako pilotari profesionalen txapelketan egin duten lan ona eskertu nahiean, bihar larunbata, gaueko 9etatik aurrera Uribarriko Elkartearen Urra eta Irazolari omenaldia eskainiko zaie. Omenaldia Arrasateko pilotazaleek antolatu dute eta elkarren artean afaltzeaz gain, hainbat sari izango dira bi pilotarientzat, eta baita beren botileroentzat, Barandiaran eta Xipirrentzat hain zuzen ere.

Lehiaketak

• San Juanetarako kartela

Udaletxeko Kultura Batzordeak San Juan jaietarako Kartel-Lehiaketa antolatu du berriz ere. Kartelen teknika librea izango da, eta formato bertikalean 50 x 70ko kartela aurkeztu beharko da. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 22an bukatuko da eta ezarri den sari bakarra 100.000 PTakoa da.

Txirrindua

• Zikloturistak Bizkaiara

Deba Garaia Txirrindulari taldekoak igande honetan Bizkaia alderantz joango dira. Ibilaldia honako hau izango da: Arrasate - Maltzaga - Ermua - Trabakua gaina - Mallabia - Areitio gaina - Berriz - Arrasate. Ibilbideak guztira 62 kilometro ditu eta irteera goizeko hamarretan izango da trenaren geltoki zaharretik.

Erakusketa

• Eskulanak

Monterroneko erakustokian ikusgai dago Beni Uzkiezen eskulanez osatutako erakusketa. Eskulan horiek ikusi nahi dituenak zabalik izango du Monterroneko erakustokia honako ordutegi honetan: egunero 6etatik 8etara, larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.



“.....
 Aurrean dugun desastre ekonomiko ikusirik, hiru agente sozialek—enpresariak, sindikatuek eta administrazioak— apurtutako plateren errua elkarri nola botatzen dioten ikusiko dugu. Eta konfusioan, funtsezkoena ahaztuko dugu: hiruek dutela arrazoi.


(...) Badakizue zeinek ordainduko dituen desmadre honen ondorioak? Oso erraza : langabetuek, gazteek eta emakumeek. Zein sindikatutakoak dira? Inongoak ere ez seguenik. Nori ematen diote botua? Seguru asko ez dute boturik emango; eta sindikatu eta alderdi politikoeak badakite hori”.

(Antton Perez de Callejak El Mundo Egunkarian)

“.....
 Futbola ere espektakulu bat da, baina Errealak funtzionatuko badu, jubeniletan jolas egin beharko dute gaztetxoek. Bertsolaritzak ere estadio asko ditu eta jolasa ere badela esan nahi dut. (...) Arte gehienak nolabait publikoarekiko autonomia lortzen dute, baina bertsolaritza ezin dela konprenitu ‘feedback’ etengabe hori gabe eta espektakuluaren ardatza ere publikoarekiko harreman hori dela iruditzen zait. Guk publikoaren aurpegiak ikusi gabe ezin dugu bertsorik bota eta hori ez da artista bezala dugun mania bat, bertsolaritzaren muina baizik. Horregatik esaten dut irрати eta telebistan bertsolaritzak berotasuna galtzen duela. Jendaurrean egindako saio baten laburpena eman dezake, baino oso zaila da mikrofonoaren aurrean publikorik gabe egindako saio bat ondo ateratzea”.

(Jon Sarasuak Zorroagan Bertsolaritzaz egindako mahainguruan)

Zer erizten diozu maiztzean egingo zaien ehiztariari azterketari?



Ondo aztertu dudan gaia da eta uste dut beharrezkoa dela ehiztari berrientzat; urte askotan ehizean dabiltzanei, orain arte ezer ikasi ez badute, oso zaila da gauza berririk irakastea, naturarekiko harremanak irakasten bait du beharrezko den guztia. Ehizarako hain hegazi eta abere gutxi ditugunez, nire ustez ez dago ikasi beharrik zein abere ezin den ehizatu; bai, ordea, zein abere-mota ehiza daitekeen. Horiek zeintzuk diren jakiteko nahiko da hegan egiteko erari eta hegaztiaren itxurari begiratzea.

Ehiztarien azterketa nahiko azterketa erraza da, ez dira gauza gehiegi jakin behar eta, arma eta abereei buruzko xehetasun batzuk jakitea nahikoa izaten da. Horregatik uste dut ehiztarien azterketa ondo dagoela, oinarrizkoa jakitea eskatzen du eta.

Ehiztarien artean bi ikuspuntu antzeman daitezke: bata beteranoena, legeak agintzen ez dionez nolabait paso egiten dutenena, debekuez arduratzen dira jakiteko zer ehiza daitekeen eta zer ez eta araudi berria ikasten dutenena; bestea, ehiztari berriena litzateke, ikasi beharrean daudenena. Dena dela, nik neuk, beteranoa izanda ere, azterketa hori egiteko asmoa daukat konpromezu morala dudala uste dut eta.


Azken hauen beharrei erantzuteko, Ehiza eta Arrantza Elkartean ikastaroa antolatu dugu ikasi nahi duten ehiztari berrientzat. Eta beraien kontu ikasi nahi dutenentzat ere, beharrezkoa den materiala badugu elkartean.

HERIBERTO ALTUNA


LEINTZ EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEKO LEHENDAKARIA.

20.30 - 21.00


MUGAZ GAIN



HERRI Irratia



Radio POPULAR
GIPUZKOA



T x e m a
Auzmendi

OM 1.224 DONOSTIA

LOIOLA FM 99'8

Aramaio

• S. Prudentzio jaiak

Datorren 28an, asteartean, San Prudentzio jaiak ospatzen direla eta, Aramaioko "Alaiak" jubilatuen elkarteak, ekitaldi batzuk antolatu ditu. Arratsaldeko 5etan bakalau lehiaketa izango da eta hiru sari banatuko dira; zeramikazko plater sortaz osatuak. Gero karta-joku lehiaketa hasiko da, U.D.P. erre-gional lehiaketarako balioko duena. Merienda batekin bukatuko da ospakizuna. Parte hartu nahi dutenek, 25a baino lehen eman beharko dute izena.



Bergara

• IV. Koru eguna

26 igandean Gipuzkoako Haurren IV. Koru eguna ospatuko da Bergaran. Bertara 19 abesbatz hurbilduko dira, hau da, herrialdean dauden erdiak gutxigorabehera. Guztira 800 haur kantari inguru espero dira egun honetan. Bergarako kaleetan haur kantariak eta euren musika izango dira protagonista. Aurtengo topaketa laugarrena da, lehena Iruñean izan zen 1988an. Orduetik, Azpeiti eta Legazpin izan dira bigarren eta hirugarren topaketak. Gipuzkoako Abesbatzen Elkartearen asmoa urtez urte topaketa indartzea da eta oraingoan, Bergarako Aritzetak erantzun dio gonbidapenari.

• Pedro Zumelagari ongietorria

Joan zen asteartean omenaldi bero bat eskaini zitzaion Pedro Zumelagari preso bergarari. Txistu soinuarekin batera, ohorezko aurrezkua dantzatu zioten eta ondoren Zumelagak berak hitz batzuk zuzendu zizkien herritarrei. Datorren larunbatean afaria eskainiko zaio Arrano Elkartean.

Aretxabaleta

• Kultur taldeentzako dirulaguntzak

Aretxabaletako Udalak kultur eta kirol taldeek subentzioak jasotzeko bete behar dituzten baldintzak ezarri ditu. Lehendabizi, talde bakoitzak urteko ekintzen egitaraua aurkeztu beharko du. Aurreko urteko egitaraua eta ekintzen gastuak ere zehaztu beharko ditu. Era berean, udalaren ekintzetan parte hartu beharko dute udalak hala erabakitzen duenean.

• Pala txapelketa

Udaleko kultura sailak, pala txapelketa antolatu du "San Juan Sua" izenez Kirol Etxean eta Kurtzebarri frontoian. Partiduak maiatza eta ekainean zehar jokatuko dira eta. Finala ekainaren 23an, San Juan gauez jokatuko da.



Antzuola

• Antzerkia

Datorren larunbatean apirilak 25ean, 4.30etan Txontxongilo taldeak *Iputargi* izeneko lana eskainiko du. Antzuolako Zine Aretoan.

• Euskara ikasteko

"Egonaldiak familia euskaldunetan" kanpainak aurrera jarraituko du, 18 eta 35 urte tartekoak izango dira. Interesatuak, maiatzaren 27rarte eman dezakete izena...

IZAGIRRE
barategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

• Txitxinpe •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

HUETO Doktorea

**Eztarria, sudurra,
belarriak**

Ordua eskatzeko: 79 81 11
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate



**ALMACEN
DE MUEBLES**

**Prezio paregabeak!!
Zatozte!!**

Legarre pabiloia. Gipuzkoa Etorb. 6.
ARRASATE Tfnoa: 79 73 32

**ARRASATE
PRESS**



77 05 65

Publizitate eta kontsumo ikastaroa

Arrasateko kontsumitzaileen Informazioarako Udal bulegoak ikaste-txeetako irakasleentzat Publizitatea eta kontsumoari buruzko ikastaroa antolatu du. Ikastaroaren helburua nagusia kontsumoaren alorreko elementu teknikoak azaltzea da, irakasleek publizitate eta ekologia gaiari buruz Unitate Didaktikoak diseinatzen behar dituzten edukinak izan ditzaten.

Ikastaroa apirilaren 27tik 29ra eta maiatzaren 4tik 6ra bitartean burutuko da.

Lehen astean, Kontsumoa Euskal Herrian, Kontsumitzailearen hezkuntzako metodologia didaktikoak eta Ikusentzutezko alfabetazioa gaiak aztertuko dira. Horretaz gain, "Badago publizitate subliminalik?" izenburupean hitzaldi bat ere izango da. Ikastaroaren bigarren astean Publizitatea eta Kontsumitzailea eta Publizitatearen Hizkuntza gaiak aztertzeaz gain, Publizitateari buruzko proiektu baten diseinua egiteko asmoa dago. Ikastaroa, aipaturako egunetan arratsaldeko 5.30etatik 8etara izango da, San Viator ikastolan.

ONGIETORRIA JAIOPERRIEI

Josue Martinez Sancho, apirilaren 6an.
Oihane Merino Larrañaga, 11n.
Olatz Bedia Delgado, 11n.

ZORIONAK EZKONBERRIEI

Victor Manuel Arrondo Villeras & M^a Pilar Fernandez Arkauz. Apirilaren 4an, elizaz.
Jose Ramon Olalde Etxebarria & Begoña Garai Uribeetxebarria. 11n, elizaz.
Mikel Lete Leibar & M^a Elena Azpilikueta Garcia, 11n, elizaz.

Txandaka

PLAZERRA ETA SEXUALITATEA

AEDko emaku me-talde batekin bizitako sexualitate-ikastaroaren laburpentxo bat egitea litzateke helburua.

Emakume hauen bizipen sexualak lantzerakoan, behin eta berriro frogatu ahal izan dugu, zenbat urruntzen den gure sexualitatea osasun fisiko eta emozionaletik; alegia, zenbat kostatzen zaigun gure sexualitatean emakume orekatsu eta sentitzen eta desiratzen dugunarekin koherente izatea.

Guzti honen zergatia, emakume hauek ederki asko jasan duten bezala, ideologia eta moral errepresibo baten existentzia da, zeinek agintzen digun zein eredutan bizi behar dugun geure praktika sexuala. Aipaturiko eredu hauek, agerian edota mozorroturik, beti kontuz, debeku edota zikinkeria-ren parametroetan mugitu izan dira. Eta zein izan da guzti honen ordaina? Tabuak, beldurrak, ezintasunak eta bereziki **plazerrari diogun beldurra**, berau izanik gure bizitza sexuarekin tabuak eta mugak egoteko benetako arrazoia. Emakume hauek horrela heziak izan dira eta ahalegin handiak egin behar izan dituzte kate hauek hausteko eta sexu-harreman betegarri edo atseginak bizi izateko, nahiz eta kontzientek izan bide honek etengabeko lanketa eskatzen duela, helburu inpor-



Amaia Vazquez (*)

tante bat bete ahal izateko: **plazerrean murgiltzea**.

Bestetik, oso deigarria eritzi diote gurasoek berrek heziketa sexuarekin duten garrantziari, hau da, eurak direla seme-alabekiko eredu emozional eta maitasunezkoa; horregatik da funtsezkoa lehenengo beren sexualitate eta praktika sexualen

lanketa, gero ahalik eta koherentzia handienaz hezi ditzaten seme-alabak.

Bide honetatik lortuko dugu etorkizuneko haurrak eta gazteak osasuntsu eta era naturalean maitatzea eta praktika sexualak izatea.

Nire balorapen pertsonala oso baikorra izan da, taldean lortutako komunikazioa bereziki azpimarratu nukeelarik, oso giro zabala egon da eta denen bizipenak errespetu handiz konpartitu dira. Puntu honi gagozkiolarik, esperientzia hauek, hots, sexualitatea espazio pribatuetatik ateratze hau ezinbestekoa zaigula adierazi nahi nuke, azken finean sexualitateak zerikusi handia bait du giza espazioarekin osasunaz eta osasun-arloan aritu nahi badugu. Hau dela eta emakume hauek beste emakume eta gizonak animatu nahi dituzte, denon gogoia bait da plazerra sentitzeko bideak zabaltzea.

(*) **PSIKOLOGO KLINIKOA. HEZITZAILE SEXUALA.**



ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea. Tfnoak: 79 22 55 / 79 14 25

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate



Gustora ibiltzeko eta euskara lantzeko, aukera aparta dira Udalekuak

Udaleku-eskaintza zabala

AEDkoan 600 bat ume espero da

Azken urteetan bezala, aurten ere uztaileko umeentzako udaleku irekiak antolatu ditu AEDk, Arrasateko ikasteetean dabilzan ume guztiei zuzenduta. Euskararen erabilpena ziurtatzea, udaleku itxien esperientzia ezagutu ez duten umei esperientzia hori hurbiltzea eta era berean jolasean eginez ondo pasatzea izango lirarteke AEDk antolatutako udalekuen helburu nagusiak.

Udalekuak uztailean izango badira ere, izena emateko epea maiatzaren 4an zabalduko da eta maiatzaren 22an itxiko. Udalekuen lehen txanda uztailearen 6tik 17ra izango da eta bigarrena, berriz, uztailearen 20tik 30era; batean zein bestean izena emateko AEDtik pasa eta 2000 PTA ordaintzea besterik ez dago.

Gauzak behar bezala joan daitezke eta inolako ustekaberik gerta ez dadin, udalekuen antolakuntzan zuzendari bat, lau koordinatzaile eta hirurogei begiralekegingo dute lan. Gogora daitekeenez,

iaz 520 ume hartu zuten parte udaleku hauetan eta aurten 600en bat izatea espero da.

Herritik irten nahi dutenentzat ere bada aukerarik udalekuei dagokienez, alde batetik Euskal Udalekuak eta bestetik Autonomi Elkarteak Diputazioek antolatutakoak.

Diputazioek antolatutako udalekuak 8-14 urte bitartekoei zuzenduta daude, uztaile eta abuzturako. Guztira 1.600 plaza daude, 1.000 euskaraz eta 600 elebidunez. Informazioa jasotzeko 42 03 89 telefonora deitzea besterik ez dago.

Euskal Udalekuei dagokienez esan behar ekaina, uztaile eta abuztuan zehar Abaigar, Bernedo, Gofii eta Urdirozko udalekuetara joateko izena emateko epea irekita dagoela. Udaleku hauek 7 urte-tik aurrerako ume euskaldunentzat dira eta informazio gehiago nahi duenak ikastetxeetan jaso dezake.

Usteak uste

Herriko leku izkutu horietakoa izango da behar bada, baina Arrasateko Komunikabideetan lan egiten dugunok egunero ikusten dugu. Kalistrotetaz ari naiz. Mertzederiaren ehungarren urteurrena gogortzean sarritan aipatu digute Ospital Zaharra eta edadeko edozein arrasatearrek, zein hain edadadeko ez den beste askok ere esango dizu leku horrek herrian izan duen garrantzia. Eta gaur egungo gazteentzat ere halaxe zela uste nuen nik, lekuaren enkantua maite zutelaren pentsatzen nuen. Baina behar bada oportetarik bueltan larriagoa iruditu zait kalistrotetan gertatzen ari dena. Azkenean, denok miristen dugu hango katedrala eta harutzagoko gaztelua, baina, ez ote gara etxekoa dagoenetan behintzat uzteko gauza? Sarritan entzuten dira petardoak kalistrotetan, ate eta ormak ostikoka erabiltzen dituzte, eta arkuen zutabeak erdi janda eta margo-tuta ageri dira. Usaina, berriz, ezin paperean esplikatu.

Ez da hatzamarrekin seinatatzearren, baina horrelakoak egitera izkutura doanak, besterik merezi ere ez. Batzuk Mendizabalen desamortizazioaren ondoren etxea norena den eta ez den eztabaidatzen ari diren bitartean, ondarea sunsitzeari ekiten diote beste batzuk. Eta total, aurki obretan hasi behar dute... Umekeria da.

ARANTZAZU LOIDI

ITURRIOTZ taberna

**GIRORIK
JATORRENA !!**

Tfnoa: 79 16 04



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

□ Gazteentzat oharra

Ordenagailu bidezko musika-ikas-tarorako izena eman duten guztiak gonbidatuak daude datorren asteartean, hilak 28, arratsaldeko 7etan ordutegia finkatzeko izango den bilerara, Garibai Etxean.

□ Industria jantzigintza

18 urtetik gorako langabetuei zuzenduta industri jantzigintza ikastaro antolatu da Arrasaten. Izena emateko epea apirilaren 27tik aurrera zabalduko da. Informazio gehiago Udaletxean.

□ Goikobaluren eskerrona

Cantorian y Rhyd galestar abesbatza hemen izan denean antolakuntzan lagundu duten guztien lana eskertu nahi dute Goikobalukoek, bereziki ondorengoena: Arantzazuko Frantziskotarrak, Santa Agedako mojak, Arrasate Hotela, Udala, Ikasbide, Lankide Aurrezkoa, AED, Udaletxeko Euskara Batzordea, Joxe Aranzabal, Trikitixa Eskola, Lore Gazteak, Txalaparta eta Dulzainari taldea, ARKO eta beste asko.

□ EAJren oharra

Arrasateko EAJk bere afiliatu eta lagun guztiei jakinerazten die datorren igandean, hilak 26an urtero bezala meza izango dela urtean zehar hildako afiliatuen oroimenez, San Juan Bataiatzailearen parrokian eguerdiko 12.30etan. Ondoren luntxa izango da Batzokian.



LAB eta CCOOeko delegatuak kontzentrazioak burutu zituzten INEMen aurrean.

Gobernuko lan legearen aurka

Langabezi laguntzetan izan da murrizketa nabariena

Deba Garaiko LAB eta CCOOeko ordezkariak, Gobernuak lan mundurako martxan jarri duen plana salatzeke, kontzentrazioak burutu zituzten INEM-eko bulegoaren aurrean.

Plan horren ezaugarri nabariena langabezi laguntzetan eman den murrizketa izan da, laguntzen iraupena eta zenbatekoari dagokion murrizketa hain zuzen ere. Iraupenari dagokionez, Legearen arabera, langabeziko lau hilabete kobratzeko urtebete lan egin behar harko da eta urtebetekoak kobratzeko

hiru urtez lan egin behar harko da; zenbatekoari dagokionez, langabeziko lehen 6 hilabetetan soldataren %70a kobratuko da eta gainontzekoetan %60a.

Gaur egun Deba Garaian 3.232 langabetu daude: Arrasaten 1.472 (%14a), Bergaran 700 (%11a), Antzuolan 106 (%12,5a), Aretxabaletan 279 (%10,6a), Elgetan 43 (%11a), Eskoriatzan 178 (%11a) eta Oñatin 454 (%10a). Aipatutako kopuruetatik %64a emakumezkoek osatzen dute eta %65a hogeitamar urtetik beherako jendeak.



**LORAMENDI
KIROLAK**

**UDABERRIKO
ZURE MODA!**



Tasak ordaintzeko urterokoa da Udaletxeko lehiatilara joatea

%90ak denboraz ordaindu tasak

Aurrikusitakoa baino 100 milioi gutxiago kobratu ziren iaz

Iaz Arrasateko Udalak tasatan 700 miloiko kobratzea aurreikusi zuen; hala ere, 600 bakarrik kobratu ziren.

Udal tasen barne talde desberdinak daude: ibilgailu, eraikuntza, obra eta beste batzuk zergen barne. Tasen barruan bi azpisail desberdin daitezke: publizitate, obra, eraikuntza, ibilgailu eta bestelakoak. eta beste talde batean obra-baimena, zaborra, hilerriko zerbitzua eta abarreko tasak. Haez gain, prezio publikoak daude: kiroldegia, pertsonal zerbitzuak, azoka, euskaltegia eta abar sartzen dira.

Tasak ordaintzeko borondatezko eta premiazko bideetan, borondatezkoa bi hilabetekoa izaten da, hortik aurrera % 12ko igogarekin premiazkoa hasten da. Biztanleen % 90ak ordaindu ditu lehenengo epean; bigarrenean, berriz, % 6ak eta gainontzekoek anulatu edo beste bide batzuk jarraitzen dituzte. Premiazko epea bukatu eta gero, edozein ondasun enbargatzeko eskubidea du Udalak. Ordainketa hasten den unetik, 5 urteko epea du kasuak aztertu eta ordainketa zehazteko. Hortik aurrera kasu guztiak preskribitu egiten dira.

Lorazantza zerbitzuak

Datorren asteazkenean, 29an, lorazantza zerbitzuak eskaintzeko programak aurkezteko epea bukatuko da. Orain arte 8k aurkeztu dute euren proiektua, hoiengan Abadiñoko Parques y Jardines S.A., gaur egungo kontzesioduna. Adjudikazioa egiteko ezaugarri konkretu batzuk hartuko dira kontutan: eskaintza ekonomikoak, langile taldea, instalakuntzak, bitarteko materialak eta abar. Guztira 25.000 landare sartuko dira, Arrasateko lorategiak.

Umeen tanborrada

SUDC komisioak dei bat zabaldu die umeen tanborradan parte hartu nahi duten guztiei. Datorren astelehen, astearte eta asteazkenean, arratsaldeko 6etatik 7etara eman beharko dute izena Pablo Urangako bulegoan.

Gose grebalariekin elkartasuna

Arrasateko Amnistiaren aldeko baztordeak, Ceutan 40 egunez gose greban dauden bost euskal preso politikoen egoera salatzeko auto karabana antolatu du larunbat honetan. Autoen kontzentrazioa Aretxabaletako Urbaltz taberna parean izango da, arratsaldeko 4etan, gero bailaran zehar ibiltzeko. Auto-karabanaren ibilbidea Bergaran bukatuko da eta gero bertan giza-katea egiteko asmoa dago.

E · S · T · U · D · I · O

I N T E R I O R I S M O A

- Dekorazio proiektuak
- Lokal komertzialen eta etxebizitzaren eraberrikuntza
- Gremioetako ekipo osoa
- Diseinu orokorra

Garibai, 3 bis
ARRASATE
Tfnoa: 77 01 44

ESTRELLA
taberna

Txanpinoiak eta pintxo
morunoak dera gure
espezialitateak.

Elkano, 3 Tfnoa: 79 20 82

ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64

Pando

PINTURAK eta
PAPEREZTAPENAK
Aragoi, 6-3. Esk.
ARRASATE Tfnoa: 77 00 39



Urteroko umeen **Doke Txapelketa** burutu zen Aste Santuen atarian. Aurtengoan ez zen ume gehiegi hurbildu Dokean jokatzera, baina agertu zirenek behintzat ondo baino hobeto pasatu zuten Kondekua zelaiaren gainean burututako txapelketa horretan.



Lanbide Hastapeneko ikasle

talde biren bisita izan genuen joan den astean. Eskolan komunikabideak aztertzen ari direla eta, herrikoa ezagutzera jo zuten beste askok bezala. Arlo honetan euren aletxoak jartzeko balioko al du.



Arrasateko galiziarrek ere ospatu dute euren eguna. Eibartik etorritako taldeak eta hemengoek jarritako alaitasunak girotu zuen egun hori, taldea herrian antolatu eta eratzea bultzatuko duena.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



Umeentzako moda

Ferreries Kalea, 34
ARRASATE Tfnoa: 79 97 86



Orkatz Skaut Taldeak gogor lan egin zuen atartez-atarte paperak eta kartoiak jasotzen. Guztira **28.000 kilo paper** batu zutela jakin ahal izan dugu. Papera birziklatzea hain modan dagoen honetan, ez dirudi oso ondo ordaindutako materiala denik, eta skautekoek ere bi aldiz pentsatuko dute berriz bilketarik egin ala ez.



San Fantzisko Xabier Ikastolaren 25. urteurreneko abestiaren entsaioak hasiak dira. **Neska-mutikoak, Goikobalukoak, dultzaineroak, trikitilariak** eta **Jose Ramon Vitoria** abestiaren konposatzaile eta taldearen zuzendari moduan, denak ere ilusio handiz data gogoan hartuta ekintzat prestatzen.

Izen PROPIOAK

● **Tomas Madinabeitia**, 49, eskoriatzarra, Leniz bailarako Arzipreste izendatu dute. Tomas Madinabeitia Mendiolan jaio zen eta 1968. urtean apaiz egin. Tolosako Benta-Aundiko eta Antzuolako parrokoa izan zen. Duela 9 urte Zairera joan zen misiolari eta hiru urte pasatu eta gero itzuli zen; orain Oñatiko parrokoa da.

● **Roberto Sampedro**, "Pitote", 41 urte, arrasatearra. Filosofia eta Letrak ikasi zituen Oñati eta Iruñeako Seminarioetan. 1989. urtean Nikaraguarako HBko delegatu izendatu zuten eta urte t'erdi eman zuen kargu horretan. Handik itzuli eta HBko prentsa ardurdun egin zuten. Orain HBko komunikazio arduraduna da eta Urrats Berri prozesorearen ondoren Mahai Nazionaleko kide izendatu dute.

● **Joseba Ezpeleta**, 25 urte, arrasatearra, da Bergarako Udaletxeko, Errenta eta esentzioetako teknikari berria. Josebak Ekonomia ikasketak egin zituen Bilbon, Sarririkoko Fakultatean.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Manuel Uriartek orain 83 urte **landatu** zuen **Arbolapetako gaztainondoa**, 8 urte besterik ez zituela. Eskolatik etxerantz zihoala Gantxegitarren tabernako ugazaba aurrera aterá zitzaien, gaztainondoa landatzen laguntzeko esanez. Zuhaitza landatu zuen Manuelek eta zaindu ere bai, tabernariak 15 zentimo ematen zizkion ura botatzen z ion bakoitzean eta. Orduetik Manuel eta zuhaitza asko hasi dira.




Pasa den astean ospatu zuten euren kintada **60ko kintoek**. San Frantziskoko parrokian izan zuten meza eta baita bazkari ederra ere. Taldean jarri zitzaizkigun erretratoan agertzeko.



Goikobalu eta **Cantorion y Rhyd** abesbatzen arteko erlazioa girotzen garrantzi berezia izan dute Arrasateko trikitilariak eta Galestik etorritako Jack y Do folk taldeak. Ezin geldirik egon horiek tartean izanda. Zuek gabe ez zen berdina izango. Eskerrik asko.

14.30 - 16.00

KALE KANTOIAN



HERRI Irratia



Radio POPULAR
GIPUZKOA



Laxaro
Azkune

OM 1.224 DONOSTIA

LOIOLA FM 99.8



Erasora, erasora!

Futbitoan komenigarria izaten da ondo defendatzea, baina beti esan ohi den bezala, defentsarik onena eraso on bat da. Zentzu horretan, garrantzi berezia dauka ahal den guztietan aurrera begiratzeak. Bizkor ibiltzen jakitea, lagunekin ondo konpontzea eta aukerak aprobeztatzea dira armarik onenak.



Anboto

INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Iturriotz, 11 ARRASATE Tfnoa: 79 20 48

- Errentamenduak
- Salmentak
- Balorazioak, etab.

fas **PRINT**

Inprimaketa-denda

Arrasate Pasealekua, 2
ARRASATE
Tfnoa: 77 06 11
Faxa: 77 09 86



A taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Argi Ibili	7	6	1	0	42	10	13
Los Heredia	7	4	2	1	24	15	10
Fosforos	7	4	1	2	31	23	9
Fasprint	7	3	1	3	26	29	7
La Banda	7	3	0	4	23	31	6
Kajoi	7	1	2	4	18	25	4
Notxingan flo.	7	2	0	5	15	28	4
Hirei	7	1	1	5	19	37	3
Totala	56	24	8	24	198	198	56

B taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Akeitegi Express	7	5	2	0	42	18	12
Adelaida	7	5	1	1	36	15	11
Arrasate Kirolak	7	4	2	1	40	22	10
Danok Lagun	7	4	1	2	23	21	9
Gnu Seg. Bilbao	7	3	2	2	25	19	8
Adobe	7	2	0	5	21	43	4
AEK	7	1	0	6	14	44	2
Los Motz	7	0	0	7	19	38	0
Totala	56	24	8	24	220	220	56

C taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Lorategi Potroak	7	5	1	1	31	16	11
G. P. Noski	7	5	1	1	34	15	11
V. C. Daglas	7	4	2	1	26	17	10
Pepelus	7	3	2	2	26	21	8
Artzankos Udal.	7	2	2	3	36	28	6
Jo ta akabau	7	2	0	5	22	37	4
Zulu's	7	1	1	5	26	45	3
Diego Antonio	7	1	1	5	29	51	3
Totala	56	23	10	23	230	230	56

Gauzak, neurri batean, aurrez pentsa zitekeen bezala joan ziren Zaldibarren jokaturako azken ihardunaldian eta dagoeneko eza-gutzen dira ondorengo asteburuetan kanporaketak jokaturako dituzten taldeen izenak. Beharbada sorpresarik handiena Fosforos taldeak sailkapenik ez lortzea izan zen, baina La Bandaren aurkako partidua galdu zuenez, ezin izan zen sailkatu. Aurrez Fosforos taldearentzat suposatzen zen pasea Arrasate Kirolak taldeak hartu zuen, bere multzoko hirugarren postua lortu eta gero. Beraz, liga alde batera, hemendik aurrera kanporaketa sistemaz erabakiko da aurtengo Zaldibarko Futbito Txapelketako irabazlea.




Notxingan Flores: Jon Onaindia, Iñaki Riviere, Pablo Riviere, Jon Riviere, Viti Sanchez, Gorka Sodupe eta Tekila.



Hirei: Victor, Abel, Juan Carlos, Alberto, Iñigo, Roberto, Mane, Lazkano eta Luri.

JMA



Aurrelari guztiek nahi lukete aukera guztiak argazkikoa bezalakoak izatea, hau da: baloia iristen zaienerako gol egiteko oztoporik ez izatea. Jakina, baloia horrelako baldintzetan jasotzeko aurretik norbaitek defentsa eta atezaina atzean utzi behar ditu, bestela jai dago.

EMAITZAK

A taldea

La Banda 7 Fosforo's 3
Argi Ibili 7 Fasprint 0
Hirei 3 Kajoi 3
Los Heredia 3 Notxingan Flo. 1

B taldea

AEK 4 Los Motz 3
Danok Lagun 1 Arrasate Kirolak 7
Gnu. Seg. Bilbao 7 Adobe 1
Akaitegi Express 3 Adelaida 1


C taldea

Diego Antonio 1 G. P. Noski 13
Artzankos 4 Jo ta akabau 7
V. C. Daglas 7 Zulu's 0
Lorategi Potroak 2 Pepelu's 2



Lorategi
Kafetegia

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67
ARRASATE




**Elektroinjekzio
Zerbitzua**

**ARRASATE
KONPONKETAK**

Zaldispe kalea, 5
Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

IOSEBA KONTENEDOREAK



Uriburu, 23. 4.a eskuma.
Tfnoa: 79 61 18

ARRASATE

**RUMBA
TABERNA**

Iturriotz, 20 ARRASATE Tfnoa: 79 20 00

Jovi

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87

**Pintura ekologikoak
Diferentzia: zure osasuna**

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritarako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehu-nezko hormatakoak. Kortxoa. Moketa losetan.



Txutak

Pronostikoen saltsan

.....

Zaldibarko Futbito Txapelketan dagoeneko ezagutzen da final laurdenak jokatu dutenen zerrenda: *Argi Ibili, Los Heredia, Akaitegi Express, Adelaida, Arrasate Kirolak, Lorategi Potroak, G. P. Noski* eta *V. C. Daglas*.

Final laurdenak jokatu dira asteburu honetan eta arriskutsua izanda ere, pronostikoen jokoan sartuko gara. *Argi Ibili - Arrasate Kirolak* partiduan, orain arte ikusitakoagatik *Argi Ibili* sailkatu beharko litzateke baina *Arrasate Kirolak*-ekoek forma onean dabiltzala erakutsi zuten azken partiduan; dena dela, apustua *Argi Ibiliren* aldekoa. *Akaitegi Express* eta *V. C. Daglasen*

arteko partiduan *Akaitegi Express* da faboritua eta ez dirudi *V. C. Daglas*-ek sailkapena eragotziko dionik. Aipatutako bi neurketetatik aterako lirarteke lehen finalerdirako taldeak, gure apustuaren arabera *Argi Ibili* eta *Akaitegi Express*.

Lorategi Potroak eta *Los Herediaren* arteko final laurdenean ez da faborito argirik ageri, sailkapenen arabera *Lorategi* litzateke, baina apustuaren orduan sorpresaren alde egingo dugu eta pronostikoetan *Los Heredia* jarri. Azkenik *Adelaida - G. P. Noski*, iazko txapeldunei konfidantza emanez *Adelaidaren* aldeko pronostikoa. Beraz, finalerdian *Adelaida* eta *Los Heredia* elkar ikusiko lukete.

Apustueta urrunago joanda, *Argi Ibili - Adelaida* finala aurreratuko genuke; hori bai, beti ere huts egiteko arriskuaz. Datorren astean jakingo dugu zenbateraino asmatu dugun.

DATORREN ASTEAN


Partiduak

Argi Ibili *Arrasate Kirolak* (Lar. 11.00)
Akaitegi Express ... *V. C. Daglas* (Lar. 12.00)
Lorategi Potroak *Los Heredia* (Ig. 11.00)
Adelaida *G. P. Noski* (Ig. 12.00)

Zaldibarko futbito txapelketa orain arte liga eran jokatu bada ere, hemendik aurrera kanporaketen bitartez erabakiko da. Asteburu honetan laurdenak jokatu dira eta finalerdiak ondorengoan, guztietatik irabazle ateratakoek maiatzaren 9an jokatu dute azken partidua, baita hirugarren eta laugarren postuak erabakitze-ko jokatu dena ere.

• **Arimazuri** •
 dastapenak
ZABALIK GOIZEKO
 Setatik

Arimazuri plaza / Loramendi, 6
 ARRASATE Tfnoa: 79 80 44



EGIDO

Automobilarentzako
 ordezkoko piezak

Legarre Pabilioia. ARRASATE
 Tfnoa: 79 62 11

GOROSTI
 Jatetxea

Arimazuri plaza, ARRASATE
 Tfnoa: 77 06 07

LIZARRA
 taberna

Leintzibar kalea, 2
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 72 35

AGUSTIN

Auto-soinua
 Karburazioa
 Autoarentzako
 osagarriak

Uribarri Etorbidea, 16 ARRASATE
 Tfnoa: 79 73 58

Agustin Azkoaga

Lehengo Aste Santuen memoria



Santuen irudiak eramateko jendearen artean afan handia izaten zen eta batek baino gehiagok, irudiren bat eramatearren, ordaindu ere egiten zuten. Kontuan hartu behar da gainera, nekagarria zela, irudi batzuk 500 kilo baino gehiago zeuzkaten eta. Gero elizak bisitatzen ziren eta Via Crucis-ak egin.

— **Eta kofradien asuntoa?**

— Kofradiak elkarte baten antzerakoak izango lirateke, bere kuota eta bere lehendakariarekin. Hemen bazioren bost edo sei, lehen aipatutako Veracruz-ekoa, Felipe Santuarena, Santo Sepulcro edo Andanako esaten zitzaiona, Errosario Santukoa... Aste Santuan beraien irudiak ateratzeaz gain, herriko gaixoentzako limosna jasotzen zuten, abuztuaren 5ean Veracruz-ekoak meza egiten zuten San Joxepe-ko ermitan eta bertara joaten zirenei txokolatea txurroekin banatzen zitzaien.

— **Ostirala zelakoa izaten zen?**

— Eliza liturgiak goizean hasten ziren, hamarrak aldeira. Udal Korpõrazio osoa joaten zen eta bukatzerakoan Alkatea eta zinegotziak Zaldibarrera joaten ziren urrezko txanponekin Dokean jolastera. Egun hortan beste prozesio bat egiten zen, Parrokiatik Frantziskotarretara, Udal Musika Banda eta guzti.

— **Horrekin bukatzen zen guztia?**

— Igandean bukatzen ziren ospakizunak, meza nagusi baten bitartez, baina aurretik, larunbat gauean ura eta olio bedekatzaren ziren eta eliza inguruan prozesio txiki bat izaten zen. Ordu batak t'erdia aldera eliza argitu eta herriko kanpai guztiak martxan jartzen ziren, Jaungoikoa berpiztu zen seinale.

— Fama handiko sermolaria etortzen ziren, hizlari bikainak, "Aita Tirso" karmelita, "Aita Bartel" frantziskotarra eta "Aita Basabe" jesuita ziren entzute handikoenak. Infernua gora, infernua behera, baina hori bai, oso ondo egiten zuten berba. Ondo berba egiteaz gain, eliza girotu ere egiten zuten; zorrotasun itxura emateko eliza iluntzeko leihoak ezalitzen zituzten.

Aste Santutan oso gauza berezia egiten zen. Historiak dio 1408. urteko Aste Santuan Bixente Ferrer Santua

hemen izan zela predikatzen. Ostegun Santuan, sermolariek, Veracruz-eko Kofradiak gidatuta pulpitopean dagoen harriari mun ematen zioten, hura izan omen zen eta Bixente Ferrer Santuak predikatzeke erabili zuten tokia.

— **Zelakoa izaten zen?**

— Herri osoak hartzen zuten parte, ikusle besterik ez bada. 4ak aldera parrokiatik irten, Gazteluondorantz joan, handik Ferreriasera eta Iturrietatik zehar berriz elizarako bidea egiten zuten prozesioak, 4.30ak edo 5ak izango ziren ordurako.

— **“Uste dut sasoi hartan jendeak fede handiagoa zuela”**

Agustin Azkoagak, 78 urteko arrasatearrak, ondo ezagutu ditu beste garai batzuetako

Aste Santuak. Izan ere, 1923. urtean monagilo lanetan hasi zen eta 1926an utzi arte, Aste Santuetako ekintza erlijioso guztietan hartu zuen parte.

— **Agustin, gauzak asko aldatu dira, ezta?**

— Bai horixe! Lehen herri ez zuen inork irteten eta elizkizunetan jende guztiak hartzen zuen parte. Gogoan dut Ostiral Santu batean Bilbora joan beharra izan nuela eta trenean ez ginen dozena-erdi lagun baino gehiago izango; Bilbora iritsi eta kalean ez zen inor eta trafiko guztia etenda prozesioei tokia egiteko. Neure aldetik, fededun bezela, sasoi hartan jendeak fede handiagoa zuela uste dut. Elizak gauza asko aldatu ditu, batzuk onerako, baina lehen jendeak fede hobeto bizi izaten zuten nire ustez.

— **Noiz hasten ziren orduko elizkizunak?**

— Asteazkenetik aurrera egiten ziren. Asteazkenean, elizan nolabait Jesukristo hil zeneko eguna antzestu nahi izaten zen, teniolak (ilunbeak) deitzen zitzairen. Herriko mutikote guztiak joaten ziren elizara, kandelak itzali, zaratak atera, lurra hankaz kolpatu, saltoka egin... karrakak eramaten zituenetik ere bazen. Azkenean kendu egin zen, hauts handia atera eta zapaldu ugari izaten zirela eta.

— **Eta Ostegun Santuan?**

— Eguerdiko hamabiak ingurura arte jendeak lan egiten zuten. Arratsaldean, 3etan liturgi-ekintzak hasten ziren, sermoiak etab.

— **Zelako sermoiak?**

Ibai-Arte: zerbitzu sektorea herria berpiztu nahian

Zerbitzuetako ehun lagun inguru dira Arrasateko hainbat arazori aurre egiteko antolatu direnak. Erakundeei erronka eta herria kontzientziazteko gonbitea.

Arlo ezberdinetako dendak, aurrerantzean tabernariak, eta orokorrean herriko zerbitzuak, hirugarren sektorea esaten zaiona biltzen du Ibai-Arte Elkartek. Denda mundua huts-hutsik baino gehiago, beraz. Tabernak sartzearekin 100 partaide izatera iritsiko dira aurki. Guztiak Arrasateko Erdikaldekoak eta horixe da sartu nahi duen edozein merkatariri jartzen zaion baldintza. Hori eta estatutuak onartu ondoren elkarteko bazkide kuota ordaintzea. Auzoetan antzeko ekimenik sortuko balitz, Ibai-Artekoak irekita daude koordinazioan lan egiteko, izan ere arazo asko berdintsuak izango dira eta.

Zerbitzu hobearen alde

Hirugarren sektoreak Arrasaten hartu duen garrantzia ikusirik, eta Udalaren politikak zerbitzuen ar-

loa albora utzita duela eritzirik, hutsune horri erantzuteko elkartu dira, hiru helburu nagusi aurrean harturik: merkatariairen defentsa, promozioa eta prestakuntza, zerbitzuaren kalitatea hobetzea eta xede nagusizat

Arrasate Deba Garaiko buru bihurtzea. *"Berez horri erantzun orokor bat ematea ez da merkatarion zeregina, baina herritar bezala ere interesatzen zaigu, herriaren pobretzea eta aberastasunak eta bizitasunak Arrasate*

alde egiten duela ikusirik".

Horretarako, Arrasate izandakoa, gaur egun dena eta etorkizunerako zer izatea nahi den aztertzearen premia azpimarratzen dute. Tradizioz izandako industri-joera eta 70 hamarkadako industriaren loraldia, geroagoko beharaldia eta egun industria sareak bizi duen krisi egoera aipatzen dituzte. Lehen lanbide gisa edo dirua bideratzeko modu bezala zerbitzuen sektorerara gero eta jende gehiagok jo duela egiaztarik dago, eta horren ondorioz azken urteotan zerbitzuen sektorearen garapen eta pizkunde handiaz hitz egiten dute Ibai-Artekoek.

Jendearen joan etorriak

Arrasate baldintza geografiko, ekonomiko eta sozial egokiak betetzen ditu hirugarren sektorea garatu eta eskualdeko eragile ekonomiko bihurtzeko, historian zehar izan duen garrantziagatik eta egun ere duenarengatik. Puntu pribilegiatua da soziologikoki ere, eskualdeko herririk handie-



Kaleko giroak bizitasuna ekarri behar dio Arrasateri

na izan eta ekonomikoki mugikortasun handikoa izateaz gain, bereziki azpimarratu beharreko da populazio flotante handikoa izatea. Lan, ikasketa eta medikuntza zerbitzuarengatik bide, jende asko mugitzen da egunero Arrasatera. Horrezaz gain, kooperatiben sorleku izateak erakartzén duen bisita kopuru garrantzitsua ere eragin handikoa da ekonomikoki, sozialki zein kulturalki herria aberasteko.

Merkatal hirigintzaren garrantzia



Aparkalekuen arazoa oztopo da jendea Arrasatera etor dadin

"Hiri edo herri baten **di-**namismo orokorra bertako merkataritzaren bizitasunarekin zuzenean dago erlazionatuta eta bere garpenean ukaezinezko garrantzia du hirigintza komertzialak" esaten dute. Ongi antolatutako ingurune urbanistiko garbi, moderno eta sarbide onekoak bakarrik lortuko du Arrasate erakargarri eta atsegina Ibai-artekoen eritziz, eta "horretarako urruti daude Arrasate egungo beharretara egokitzeko behar-beharrezko diren aparkaleku, parking eta aisialdirako lekuak. Herritarrek berak atseginez hartu behar du bere herriaren itxura, eta zer esanik ez kanpotik datorrenak, berriz etortzeko gogoarekin eta erosotasunak izan dituela pentsatuz alde egingo badu". Bestela, eta gaur egun gerta-

tzen ari denaren ildotik, Arrasatera bestela zerbaite-tara datorrenarentzat ez da erakargarria izango eta bertakoez zein inguruko herrietakoez ere Gasteiz, Bilbo edo Donostiara joko dute. Horren harian, garraio publikorik eza eta aparkalekuekin herrian sortzen doan arazo larria aipatzen dituzte, besteak beste. Herriari saltsa eta bizitasun berri hori emateko lagungarri moduan tabernetako terrazek jartzen duten giroa, plaza eta berdegune txikiak jendea erakartzeko duten xarma eta gabonetako argi-dekorazioa jartzea beza-

lakoak gogora arazten dizkigute. "Kanpotik datorrenak zein arrasatearrak herriaz gozatu ahal izan dezan".

Udala zirikatzen

Era honetako helburuak lortzeko borrokan egin behar izatea ez dela herriko merkatarien zeregina diote behin eta berriz, eta arazoaren garrantziagatik eta herriaren etorkizunean orain egiten dena erabakiorra delako, erakundeetara botatzen dute erroka. Alde batetik Ikerketa kabinete edo antzeko baten beharra ikusten dute,

herri honek erakarpen gune moduan izan duen bilakaera aztertzeko, zerbitzuetako hutsuneak eta soberan daudenak, ase gabeko eskabi-deak eta herrian etengabeko animazioa eta etorkizundun merkataritza lortzeko.

Etorkizunerako estrategia bat lantzearen premia horretan, herriko indar guztiek izan behar dute zeresana, inplikatzeko aukera.

Udal politikaren aldaketa beharrezko ikusten du horretarako Ibai-Artek eta kontzientziazio horretan lan egiteko eta euren eritziak eta erizpideak adierazteko zabalik daude harremanetarako. Azkenean, merkatarien interes hutsa baino gehiago da, herri osoaren onerako eta Arrasate eskualdeko buru izan dadin estrategia finkatzea da bilatu nahi dena.

"Etorkizuneko estrategia lantzea ezinbestekoa da"

OTXOA

Hazi aukeratuak,
pentsuak eta
fitosanitarioak

Mondragones, 1 ARRASATE
Tfnoa: 79 86 70

OLA-OSTE

Kirol denda


Bizkaia Etorb. 10
ARRASATE
TFNOA: 79 65 34

ARRASATE

PRESS



77 05 65



22 arrasatear Gipuzkoako Atletismo Txapelketan

Maizbide, Gay eta Fernandezek ez dute parte hartuko

Arrasate Atletiko Taldeak larunbat eta igande honetan konpromezu garrantzitsua dauka Donostian. Izan ere, aipatutako bi egunetan Gipuzkoako lehen mailako atletismo taldeen txapelketa burutuko da.

Gogoratu iaz Arrasateko atletek hirugarren postua lortu zuten, baina aurrean, bajak direla eta ez direla, zaila izango zaie kategoriari eustea ere. Jose Antonio Gay selekzioarekin, Ignacio Maizbide lesionatuta eta Luis Fernandez erretiratuta dira bajarik aipagarrienak.

Dena dela, Donostian izango ez direnak alde batera

utzi eta bertan parte hartuko dutenei kasu egin beharko zaie, azkenean hauen esku bait dago kategoriari eustea edo ez eustea.

Arrasatek Anoetako estadioan izango duen ordezkariak, ondorengo atletek osatzen dute:

- 100m. Lorenzo Avila.
- 200m. Aitor Arnaiz.
- 400m. Jaime Sanchez.
- 800m. Gabi Saavedra.
- 1.500m. Alex Saavedra.
- 5.000m. Javier Mentxaka.
- 10.000m. Enrike Kabiketa.
- 110m. hesiak. Carlos Vitoria.
- 400m. hesiak. Juan Carlos Martin.

- 3.000m. oztopoak. Jose Ramon Petrefias.
- 10 km. marxa. Jose Antonio Fuentes.
- Pisu jaurtiketa. Asier Fdez. de Arroiabere.
- Disko jaurtiketa. Mikel Iturbe.
- Txabalina. Ignacio Maizbide.
- Mailu jaurtiketa. Aitor Urizar.
- Luzeera jauzia. Mikel Uribealzo.
- Altuera jauzia. Jokin Diaz de Lezama.
- Pertika jauzia. Javier Blanco.
- Jauzi hirukoitza. Miguel Sancho.
- 4x100m. Avila, Fernandez, Vitoria eta Sancho.
- 4x400m. Arnaiz, Sanchez, Martin eta Canales.

Hurrengo partidua

Arkaux eta Idigoras-en aginduetara sailkapeneko egoera zerbait hobetu da, baina ligari amaiera emateko falta diren bost partidua jokatu arte, Mondraren egoera ez da zeharo argituko. Arrasatearrek 32 puntu dituzte eta entrenatzaileen hitzetan, gutxienez 35 beharko lituzkete kategoriari eutsiko diela ziurtatzeko.

Igandean Gernikan jokatuko du Mondrak, sailkapenean arrasatearren parean dagoen taldearen aurka. Partidua gogorra izango da, gernikarrek ere Mondrak dituen esperantza berberak izango dituzte eta.

Beharbada, Mondrarentzat Gernika baino etsai gogorrago izango dira lesioak, ondorioz Arkaux eta Idigoras ezin izango dutelako beraien nahiko luketeen taldea zelairatu. Dagoenarekin konformatu behar eta aste honetako bidaian ere, jubenil mailako jokalariek partaide izango dira.

Zailtasunak argi ikusten badira ere, eta azken aldean lortu diren emaitzak kontuan hartuta, konfidantza izan behar da jokariengan eta baliteke emaitza positiboren batekin bueltatzea. Izan ere, jokalariek ilusioz eta gogoz dabilta.



F A N C Y

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 3 ARRASATE

Josean

Gay

Bartzelonako Olinpiadarako bidean

PODIUMA



Aurreko alean Enrique Alonso ekarri genuen aldizkariko sail honetara eta oraingoan ere, beste berterano batekin egin dugu topo, Josean Gay-rekin. Izan ere, Arrasateko atletarik azkarrenak, ehun metro hamaika segundutik bera egiterakoan, errekor historikoa gainditu zuen Tolosan. Ehun metroak egiteko Josean Gayk 10 segundu eta 97 ehuneneko behar izan zituen. Aipatutako markari esker, atleta gazte hau ehun metroetan hamaika segundu baino gutxiago egin duen lehen arrasatearra da. Aurreko marka, 11 segundu eta 20 ehunenekoa, Lorenzo Davilak, Gay errekorra gainditzen ikusi zuen gizonak lortu zuen orain 3 urte.

Maila handiko ehun metrotako atleten markekin konparatuz gero, Josean Gay-rena ez da apartekoa baina asko esan nahi du arrasatearraren egoera fisiko onaren alde. Bartzelonako Olinpiadari hasiera emateko hiru hilabete bakarrik falta dira eta arrasatearra sekula baino gorputzaldi hobean dago. Beraz, baliteke hemendik denbora gutxira, Olinpiadara joan ahal izateko behar dituen gutxieneko markak lortzea. Behintzat bera eta ingu-

ruan lanean dabiltzanak horretara bideratu dituzte ahalegin guztiak.

Egun hauetan Euskadiko Atletismo Federakuntzak antolatutako kontzentrazio batean dago Josean Gay, Gandian. Kontzentrazio hori bukatu eta arrasatearra Estatuko Atletismo Federazioak antolatutako beste batetara joango da Alicantera. Bi egonaldi horien helburua, bere mailako atletekin neurtu eta era berean Bartzelonara joan ahal izateko marka lortzea. Josean Gayk, 400 metrotako erreleboan sartu nahi du baina horretarako behartuta dago bere marka hobetzera. 400 metroak egiteko 47 segundu eta 40 ehuneneko denbora baino hoberik egitea ez du lortu Joseanek eta Estatuko Atletismo Federakuntzak gutxienez 47 segundutakoa eskatzen dio.

Lortuko ote du? ikusi egin behar, Fernando Zufiriak, Arrasateko Atletismo taldeko arduradunak baietz dio.

◆ Elizburu ia irabazle

Zegaman burututako jubencil mailako lasterketan bigarren postua lortu zuen Jose Miguel Elizburuk. Irteeran 107 txirrindulari eta 58 kilometroko ibilbidea egiteko, helmugara 54 txirrindulari besterik ez ziren iritsi. Elizburu, Dorletako Ama txirrindulari taldekoa izan zen lasterketako protagonista, berrogei kilometroko ihesaldia egin eta gero. Dena dela, helmugara iritsi aurretik harrapatu zuten eta bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen. Dorletako gainontzeko txirrindulariek honela sailkatu ziren: 10. Zigor Urain, 27. Felix Zugasti eta 29. Aritz Altube.

◆ Pala Txapelketa Aretxabaletan

Aretxabaletako Udaleko Kultur Batzordeak antolaturik "San Juan sua I saria" izeneko binakako pala txapelketa burutuko da maiatzean hasi eta San Juan gauera arte. Txapelketa gomazko pelotaz jokatuko da eta izen-ematea Kiroldegian, Kultur Etxean, zein Gurea eta Zaraia tabernetan egin daiteke.

◆ Mondrako emakumezkoen partidua

Deba Garaiko emakumezko futbol taldeen arteko derbia ikusteko aukera izango da igandean, kopa txapelketari dagokion Mondra eta Aretxabaletaren arteko partidua. Mondrak ez du partidurik galdu eta sailkapeneko lehen postuan dago. Igandeko partidurako arrasatearrak dira favorito nagusi, aurten atxabaltarren aurka jokatu dituzten partidua guztiak irabazi dituzte eta.

◆ Omenaldia Urria eta Irazolari

Larunbatean, gaueko 9etatik aurrera Uribarriko elkartearen omenaldia eskainiko zaie Urria eta Irazola, eta bien botileroei. Omenaldia Arrasateko pilotazaleek antolatu dute.

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tfnoa: 79 31 99



PAZI-OLA S.A.
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2 ARRASATE Tfnoa 79 29 91

Norbere hizkuntza ez da aukeratzen


Azken aste haue-
tan irakurri eta
entzun ahal izan
dugu Euskara
edo inglesaren
artean aukera egitekotan zer
ote den egokiena.

Hasteko, objetibotasuna
norbera kokatzen den ikus-
pegiak baldintzatzen duela
adierazi nahi nuke.

Hiru multzotan zatituko
nituzke erabaki horri buruzko
jokabideen sujetoak:

- Lehenengoa euskotar euskaldunek osatuko lukete.
- Bigarrenkoa euskotar izan eta euskaldun izaera maite dutenak.
- Hirugarrenkoa euskotar izanik espainol izaeran ase direnak.

Azken talde honetaz ez
dut ezer esango. Nik lehe-
nengo eta bigarrenko mul-
tzoetako edonork har de-
zaken jarrera nereganzatzen
dut. Eta euskalduna izanik ez
da inor harrituko. Ni kokat-
zen naizen taldeak, euskal-
dunak edo euskal izaera maite
duenak, ezin du euskararen



eta inglesaren arteko aukera
egin. Madriltarrek edo Lon-
drestarrek espainolaren eta
inglesaren artekoa egin duten
bezala, bakoitzari berea bait
dagokio.

Euskotarrentzat, guretzat,
euskara geure hizkuntza da,

Paristarrentzat frantsesa edo
Berlindarrentzat alemana den
bezala.

Beraz, erabakitzea be-
hartzan bagaituzte, euskara
oinarritzat apartatuta, espai-
nola eta inglesa jarriko ni-
tuzke elkarren arteko auke-

ran.

Baina azken aukera hau
ere inozokeria jotzen dut.
Euskaraz aparte espainola eta
inglesa ere ikasteko hainbat
bitarteko eta ahalmen dugu-
lako.

JOXEMARI MUJICA



Parques y Jardines


PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA

LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR

LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ

Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)





Udalaitzeko altxorra

Gaur egun, Arrasateko azalera nagusia gizartaturik dugu.

Toki batzuetan oso sakabanaturik eta irlak izango bailira, naturak oparitzen dizkigun bitxi apartak geratzen zaizkigu. Bitxi horietatik, agian preziatuena, Udalaitz hegoaldeko maldetan hedatuta dagoen artadia da.

Artadia, mediterraneoko baso tipikoa da, hala ere oso ondo ordezkaturik dago kantauri aldean, hemen beste klima bat izan arren, atlantiarra hain zuzen. Orain dela urte pila bat,

gaur egun mediterraneo aldean duten klima bera izan zen inguru honetan. Aldaketa gertatu zenean, pixkanaka pixkanaka inguru horietatik desagertzen joan zen, oraingo egoerara helduz. Gaur egun, hasierako baldintzeta hurbiltzen direnak eta kontrako aurkitzen ez dituzten inguruetan garatzen dira arteak.

Konturatuko garenez, eta bere izugarritzko garrantzi ekologikoa alde batera utziz, altxor aparta dugu gure inguruan. Gizakiok, inguru hauetara hurbildu




ginenetik, ikatza eta egurra hartu izan ditugu altxor horretatik. Azken urte hauetan, gure presentzia ugaritu den neurrian, altxorra pobretzen joan gara, batez ere bere eremuak beste zuhaitz arrotzekin betez.

Gure inguruan dugun

klima atlantiarra aurrerantzean mantentzen baldin bada, arteek beste zuhaitz batzuei utziko dizkiete bere esparruak, beharbada altxor hori aberastuz. Horrela mantentzen ditu Naturak gizaldiz gizaldi, gizakiok epe motzean uztiatzen ditugun altxor hauek.

Umeen aldarrikapenak!!

UIEn lantzen dugun jolas batek, hiriko berdegunerik eza edo desagertzea du hari bezala. Arrasatearrekin planteatzen duguna, labur bilduz, honako da:



IZENA: MAITE
ABIZENAK: AZURMENDI BARRENA
PERTSONAIA: ARRASATEKO LAGUNA
ADINA: 25 URTE

"Derecho" ikasketak bukatu berriak ditu eta bulego txiki bat irekitzeko asmoa dauka. Beste aldetik orain arte gurasoekin bizi izan da, baina independizatzeko gogoia dauka. Berak ez dauka oraindik ingresorik baina gurasoak lagunduko diote, eta horretarako Udaletxean izena eman du proiektu horretako etxe bat erosteko.

"Etxebizitza bat eskuratzeko dagoen eskaria ez dator bat eskaintzarekin. Arazoa konpondu nahian Udalak Monterroiko eremuan eraikuntzak egitea onartu du". Egoeraren mamia, parkearen desagertzea ekarriko duena eztabaidatzea da. Ikasle bakoitza pertsonaia bat bihurtzen da, etxegile, abokatu, ekologista edo herritarra. Irakur itzazue pertsonai hauen iritzi batzuk:

- **Txarrok**, 11 urtetako "herritarrak" horrela dio: "Monterroi parkea kenduz gero, ez genduke jakingo arratsaldea pasatzera nora joan".
- **Asierrek** (11 urte), ekologista bihurturik horrela dio: "Monterroi parkea mantendu egin beharko dugu, oxigeno garbia amastea nahi badugu".
- **Mirentxuk**, 12 urtetako abokatuak zera dio: "Etxebizitza onak egiteko leku aproposa da. Horrela jende gaztearen beharrak beteko dira".
- **Gorkak** 11 urtetako etxegileak zera proposatzen du: "Kalitate oneko etxeak egingo ditugu, dauden zuhaitzak eta animaliak errespetatuz".

Ikusten denez, umeek badute zer esanik arazoan aurrean. Arazoetan ingurugiroaren-tzako mesedegarri izango diren kriterioak erabiltzen Irakatsi behar diegu.

Cymru am Blyth!

Galestar enbaxadaren arrakasta

Lanelly-ko *Cantorian y Rhyd* abesbatzakoek oso altu jarri ziguten harreraren listoia Goikobaluren bisita jaso zutenean, oraintsu urtebete dela (iazko Aste Santuan). Oraingoan beraiek ziren gonbidatuak, eta gure txanda gidari bezala, eta ez dut esango listoia gainditu dugunik, baina bai gutxienez duinki parekatu.

Lau egun igaro zituzten Goikobalukoek Galesen (*Cymru*, beraiek esaten dioten bezala), eta lau egunez izan ditugu aurten gure artean.

Ostegun arratsez iritsi, eta elkarrekin afaldu zuten bi abesbatzek. Gehienontzat urtebete zen elkar ikusi gabe; beraz, pentsa dezakezue zenbaterainokoa zen berotasuna. Kanpoan ez, kanpoan euria ari zuen, baina ez zituen horrek gehiegi



Beste tokirik ezean, Udaletxeko eskaileretan kantatu behar...

izorratzen, beraienean ere eguneroko kontua bait da euria.

Euskal kultura ezagutzen

Euskal kulturaren arlo gehienak ikutu nahi izan dira bisitaldi honetan, hala nola gastronomia, folklorea, paisaia (Errioxatik kostalderarte), ekonomia eta, nola ez,

hizkuntza. Interes berezia agertu zuten larunbat bazkalostean Joxe Aranzabalek Euskararen historia eta egoerari buruz ingelesez luzatu zien hitzaldian.

Guztiaren amaieran hauxe daukate garbi: ez zaie la, arrazoirik falta gurekin, Euskal Herriarekin, identi-

fikatuta sentitzeko, bai fisikoki eta bai kulturalki.

Xabier Zubizarreta alkateak larunbateko harrera ofizialean botatu zuen bezala, "pena da hizkuntza dela medio elkar ulertu ezina; baina badago hizkuntza unibertsal bat, eta hori musika da". Eta egia zen, alajaina! Hizkuntzaren trabarekin ere, komunikaziorik ez zen falta izan. Galdetu bestela Santanderreko ferryan agur esaten izan zirenei; eurak untzian eta arrasatearrak kaian, oraindik oihuka eta elkarrekin kantuan.

Beraz, eta politika munduarekin parekatuz, bi enbaxadek arrakasta itzela izan dute, harrera ezin hobea. Hurrengo pausoa, bi herri onan anaitze ofiziala. Ez ninduke harririk.

PATXI MONTERO

HOSTAL LASA

Jatetxea

Ostiral eta larunbatetan gauez zabalik.
Astelehenetan: itxita

Bidekurutzeta, 36 Tfnoak: 76 10 55 / 76 20 29
BERGARA

Hywel Lewis eta Ann Pritchard

Cantorion y Rhyd -eko zuzendaria eta lehendakaria

Pozik zeuden galestarrak guk egindako harrerarekin. Gure lurra ezagutzeko, euren kultura zabaltzeko, ondo pasatzeko, eta elkarren arteko harremana sendotzeko balio izan dute gure artean igarotako lau egunek. Dagoeneko, arrasatearrok geure etxe dugu Llanellyn.



— Urtebete igaro ondoren, ez al zineten beldur orduko harremana ez ote zen iada hotzitu izango?

— Ez. Izan ere, Goikobalu gurean izan zenetik, elkarrekin kontaktoan jarraitu dugu nolabait, bai eskutitzen bidez, edo telefonoz, edo adibidez abesbatzako neska batzu gure artera itzuli ziren udan, eta aurten ere izango da halakorik (gonbidatuta zaudete denok).

Lortu dugun harremana oso sendoa da eta, nahiz eta bi abesbatzen arteko erlazio formalik gehiago ez izan, partaideon arteko harremanek luze irautea espero dut.

— Nola planteatzen duzue abesbatzaren lana?

— Beno, iaz ikusi ahal izan genuen Jimmyk oso seriooki daramala Goikobaluren lana. Guk ere pareko garrantzia ematen diogu, beti ere, bi helburu garbi

ditugarik hasieratik: Bata, galeseraren aldeko apostua (galeseraz mintzatzen gara normalean, hori da gure hizkuntza, eta galesera hutsez kantatzen dugu); bestea, gure musikan oinarrituz, beste herri batzuekin kultur-elkartrukeak izatea.

— Bisita ugari burutu duzue egun hauetan. Bereziki interesgarria iruditu zaizuenik?

— Dударik ez, bata Lan Kide Aurrezkira egindakoa. Bertan kooperatiben fenomenoaz azaldu digute.

Negozio-gizon eta industrialari ugari dago Abesbatzan eta txundituta gelditu dira. Badaukate zer kontaturik itzuleran kalitatezko lanari buruz.

Bestea Euskararen inguruko hitzaldia izan dela esango nuke. Bertan ikasi dugu zenbaterainoko berdintsuak diren bi herrion egoera eta ezaugarriak.

— Udaletxean izan duzuen harrera ofizialean, zuek omenaldi hunkigarria egin nahi izan diozue Joxepa Arregiri. Nondik dator hori?

— Denbora asko ez dela, BBC telebista kateak Euskal Herriari buruzko erreportaiak eman zuen. Bertan Arrasate agertzen zen, eta izugarri inpaktatu gintuen andre honek. Erreportaiarekin, herri bezala, erabat identifikatu ginen eta, politikan gehiegi sartu gabe, andre honengan konpromezu baten, nortasun baten, borroka baten irudia ikusi genuen. Hortik etorri da omenaldia.

— Egun hauetan bi kontzertu eman dituzue. Nola joan dira?

— Ostiralean Arantzazuko basilikan abestu genuen "Via Crucis"aren aurretik. Larunbatean, berriz, Goikobalurekin batera Udaletxean. Tokia nahiko xelebrea zen, baina guri ez digu axola, akustika oso ona bait zen. Goikobalu ondo aritu zen eta, guri dagokigunez, esan behar zuzendaria irrifartsu zegoela amaieran; beraz, seinale ona.

Baina batez ere entzulegoaren egoteko gaitasunak eta kontzentrazioak harritu gaituzte.

— Eta historia honen hurrengo atala?

— Umm... Jarraituko du.

JOSEBA VALLES ETA
PATXI MONTERO

“Galesera eta galestar kultura dira gure izatearen arrazoia”

Onduline

TXOMIN HERIZ

URALITA

eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18

Osorik
pub

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

Aste gazte

"Informazio ona edukita bakarrik egin daiteke aukeraketa libre bat"

Entre jóvenes



eta estatu espainoleko auzo-landegietarako maiatzaren 4tik aurrera. b) Euskal Elkarte Autonomikoan antolatutako plazak, berriz, maiatzaren 11tik aurrera erreserbatu ahal izango dira.

Lanpostuak

- Irungo Udalak 36 lanpostu betetzeko deialdia egin du (GAO 92-04-13an argitaratuta). Besteak beste, honako hauek: Administrazio Orokorreko Teknikaria, Kirol Teknikaria, Liburuzaina, Mantenimenduburua, ATS, Gizarte Laguntzailea, Sanitate Heziketako Teknikaria, 4 administrari, Delineante bat, Famili Hezitzaile 2, 8 udaltzain, e. a.

Ikastaroak

- Industri jantzigintza ikastaroa Arrasaten, 18 urte-tik gorako langabetuei zuzendua. Izena emateko epea:

apirilaren 27tik aurrera, Udaletxean (enplegu dinamizatzailea).

- Ordenagailu bidezko musika-ikastaroa: ikastaro honetarako izena eman duten guztiei ohar bat: datorren asteartean, hilak 28, arratsaldeko 7etan bilera izango da Garibai Etxean ordutegia finkatzeko. Bestalde, plaza batzuk geratzen direla jakinerazten zain interesatuta daudenei.

Lehiaketak

- "Villa de Azuqueca" IV. Pop-rock lehiaketa. Parte hartzeko, 3 abestitako zinta bat aurkeztu behar da. Sariak: 200.000 eta 100.000 PTA. Bidaietarako dirulaguntzak ere eskainiko dira. Lanak aurkezteko epea: apirilak 30.

- Lekeitioko IV. Eusebio Erkiaga Ipuin Sariaketa. Euskaraz. Gai librea. 2 adin maila: a) 15-18 urte, b) 19tik


gora. Sariak: maila bakoitzeko 3 (25.000 eta 50.000 bitartekoak). Lanak aurkezteko epea: maiatzak 15.

- Arrasateko San Juan jaietarako kartel-lehiaketa. Teknika librea. Neurriak: 50 x 70, formato bertikalean. Sari bakarra: 100.000 PTA. Lanak aurkezteko epea: maiatzak 22.

- Bergarako Hiria VIII. Argazki-Lehiaketa, Pol-Pol Argazki Taldeak antolatuta. Gai librea, zuribeltzean edo koloretan. Sariak: 20.000, 15.000 eta 10.000 PTA. Lanak aurkezteko epea: maiatzak 22.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65



Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe, 5 Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE

ETXEBIZITZAK

- **Pertsona bat behar da hiru irakaslerekin pisua konpartitzeko.** Dei egin ordubatek 2etara. Tfnoa: 79 71 16.
- **Bi oheko logela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Langile batzuk etxebizitza bila gabiltza** Arrasate edo inguruetan. Tfnoa: 77 04 58.
- **Etxebizitza behar dut alokairuan.** Tfnoa: 79 51 21.
- **Ekainetik aurrera, ekaina barne, logela bat dugu alokagai ikasle etxebizitza baten.** Interesatuak dei egin asteburuetan 94 - 630 85 40. Oso merkea.
- **Bi neska etxea behar dute alokairuan** Arrasate edo inguruetan. Dei egin 79 31 00, 127 luzapenera. Gotzone edo Maite.
- **Etxebizitza salgai.** Sukalde-jangela jantzia, 3 logela bere armairuekin, egongela, komuna eta 2 terraza. Argitsua, eta bista ederrekoa. Prezio onean. Tfnoa: 79 93 42.

- **Emakume euskalduna behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko.** Dei egin 8etatik aurrera 77 00 50 tfnora.
- **Sukaldeko laguntzaile moduan lan egiteko gertu nago asteburuetan.** Tfnoa: 79 24 58.
- **Eskoriatzan klase partikularrak emango nituzke** (matematika eta fisika). Talde txikietan (4koak gehienez). Erdaraz. Tfnoa: 79 34 26.
- **FP2 mailako kimika irakatsiko didan norbait behar dut.** Dei egin 79 50 53 tfnora.
- **Aretxabaletan andra euskalduna gertu umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko.** 79 07 75.
- **Umeak eta etxeko lanak egiteko** euskaraz dakien emakumea behar da. Dei egin 8.30etatik aurrera 79 25 12 tfnora.
- **Neska lizentziatu berriak klase partikularrak emango lituzke.** Euskara eta ingelesarekin. Tfnoa: 79 04 07.
- **Marrazketako klase partikularrak behar dira** F1 mailakoa (erdaraz). Tfnoa: 79 24 33. Ander.
- **Marrazketa diedrikoko klase partikularrak hartuko nituzke.** Tfnoa: 79 79 04.
- **Marrazketa linealeko klaseak emateko norbait behar dut.** Tfnoa: 79 72 47.

- **Peugeot markako paseoko bizikleta eta Orbea Siroko karreterakoa salgai.** Gutxi ibilitakoak eta oso egoera onean. Karreterakoa barruko frenoak kilometroak kontetakoak eta platuak karreratakoak ditu. Dei egin 79 71 30 tfnora. Aitor.
- **Renault 4 zuri eder bat salgai.** Egoera onean dago eta gainera merke. Dei egin 94 - 475 33 86 tfnora. Ikusi, asteburutan ikus dezakezu. Aprobetxatu!
- **R-7 egoera onean salgai.** Tfnoa: 79 31 20.
- **Karabana ekipatua salgai.** Sei lagunentzako tokia. Errioxako Bañareseko kanpinean jarria. Tfnoa: 79 20 19.

DENETARIK

- **Urrezko kate bat topatu dugu kalean, zurea bada** dei egin 7etatik aurrera 79 33 35 tfnora.
- **Egunero Bilbora joateko tokia behar dut kotxe baten.** Tfnoa: 79 31 47.
- **Musika talde afizionatu batek teklista behar du.** Tfnoa: 73 01 17.
- **Urrezko belarritakoa galdu da.** Inork aurkituz gero dei dezala 79 53 21 tfnora. Saritua izango da.
- **Giltzak galdu nituen Monterron aldean.** 9 giltza kartera bati lotuta. Aurkitu badituzu, Arrasate Pressera ekarri. Eskerrik asko.
- **Astelehen goizetan zazpiak laurden gutxiago aldera** Donostiara kotxez joaten den norbaitekin egongo ginateke. Tfnoa: 79 13 83.
- **Urrezko txapa aurkitu nuen kalean martxoak 18an.** Izena eta eguna jartzen ditu. Galdu duenak dei dezala 79 20 47 tfnora.
- **Idoiari eta Joxe Juani.** Zorionak, zuek bai balixo dozuela. Kuadrilakuek.
- **Ikasle batek bidai-poltsa galdu du.** Topatu baduzu utz ezazu mesedez Musakolako gasolindegian, guztiz beharrezkoa dut bertan zegoen materiala eta.

LANA

- **Andre euskalduna gertu umeak zaindu, etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Ostiral edo larunbatetan ingelesa erakusteko norbait behar dut.** Tfnoa: 79 38 01.
- **23 urteko neska gertu etxeko lanak egin edo umeak eta nagusiak zaintzeko.** Tfnoa: 79 97 30.
- **Fisikako klase partikularrak emateko fisikaria behar da** (Euskaraz edo erdaraz). Tfnoa: 79 48 09. Itziar.
- **Esperientziadun emakume euskalduna ospitalean gaisoak zaintzeko gertu.** Gauzez nahiz egunez. Tfnoa: 79 34 51.

SALEROSKETAK

- **Mendiko Camet bota pare bat (44 zenbakikoak)** salgai. Erabili barik eta oso merke. Tfnoa: 76 24 64. Joxemiel.
- **Amstrad CPC 464entzako jokuak eta programak** aldatuko nituzke. Interesatuak dei egin 79 42 95 tfnora. Sergio.
- **la berria dagoen akordeoia salgai.** 120 baxu. Beltza. Dei egin gauzez 79 80 91 tfnora.
- **Kotxeko gupilari kubiarta bi salgai.** Oso egoera onean. Michelin MXV2, 185-60-13 neurrikoak Tfnoa: 79 03 88.
- **CDU ur-berogailua salgai (Duplex)** Fagor, oso egoera onean. Tfnoa: 79 09 52.

ARRASATEN HILDAKOAK

- Gloria Mardónes Alonso, apirilaren 9an. 84 urte.
- Asuncion Eunez Arkain, apirilaren 13an. 87 urte.
- Pedro Zenitagoia Velar, apirilaren 14an. 61 urte.
- Calixto Astondoa Ruiz de Azua, apirilaren 16an. 89 urte.
- Maria Juana Alzelai Agirre, apirilaren 16an. 81 urte.
- Idefonso Cabezón Bazurco, apirilaren 16an. 76 urte.
- Ignacio Estrella Fernandez, apirilaren 17an. 64 urte.
- Claridad Africa Martin Martin, apirilaren 19an. 64 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Maite Uribarreniturrieta

Pal Ferreteriakoa



- Brikolagea ala profesionalen lana? Brikolagea.
- Material mota bat? Burdina, gehien saltzen dena.
- Nolakoa da emakumea bezero bezala? Gizona baino txarragoa. Ferreterian gizakumea hobeto.
- Autoa ala furgoneta? Autoa.
- Zeure burua saltzaile ontzat daukazu? Nik uste baietz.
- Eskaparatea txukuntzea ala saltzen egotea? Saltzen, saltzen.
- Erropa erosteko herrian ala kanpoan? Herrian, dena herrian.
- Aperitiboan zer? Ardaua.
- Kafea koparekin? Ez.
- Ogitartekoa ala platerekoa? Bokadiloa.
- Etxean landareak ala animaliak? Animalirik ez, lorak.
- Gizonezkoa biboteaz ala bizarrak? Bizarrak!
- Mediterraneo ala hemengo kostaldea? Ikusteko hemengoa hobe, baina oporrak hartzeko mediterranea.
- Giltzak eta zerrailak Arrasatekoak? Arrasatekoak, Aretxabaletakoak eta Eskoriatzakoak.
- Giltzak koloretakoak ala normalak? Normalak.
- Dirua eskura ala txeke bidez? Eskura, eskura.
- Gustora irakurri duzun zerbait? Egunero egunkaria gustoren. Armosua bezala.
- Udala ala Bedoña? Udala.
- Atzerriko hizkuntzak? Ez, ingles apurtxo bat, baina gutxi.
- Autoarentzat kolore bat? Zuria.

Bertsotan

Aste Santua pasa da eta


1

Aste Santua pasa da eta horri buruz behar mintza azken finean bere zentzua jada zapuzten gabiltza asteen zehar burutu arren elizak mila ekintza nahiago dugu orokorrean gizartearen baldintza kristautasuna alde batera erosoago bizitza.

2

Sekulartasun portzentaia gaur dugu oso nabarmena horixe bait da gaur eguneko jokabide errazena denek diote kristauei buruz ematen dutela pena "rollo" bat dela egia esan Biblian idatzi dena elizaz paso Jesusi uko nahiago dute taberna.

LEIRE GOROSTIZA



Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE

LETE Toldoak

Kataide industrialdea, 14. pabiloia

- Arrasate: 79 23 83
- Bergara: 76 12 24
- Iurreta: (94) 681 76 19



Ostiral Santua Biteri eskolaren aurrean, 1921-22

O

rain berrogeita-
mar urteko
Aste Santuak
ziren. Ostiral
Santuero
bezala proze-
sioa burutzen
zen egun
horretan, jende

ugari erakartzen zuen prozesioa inolaz

ere. Argazia Biteri Eskolaren
aurrean aterata dago eta Errosario
Santuko Kofradiaren irudia jasotzen
da bertan. Argazki erdian dauden hiru
neskatilak, aingeruak prozesioak
irauten zuen bitartean, zeintzuk diren
jakiterik ez dugu lortu baina bai,
ordea, inguruan dauden beste batzuk.
Argazki erdian dagoena, bizarras eta
gurutze batez, Errosario Santuko

Kofradiaren lehendakaria zen, **Juan
Goñi**, prozesioko mayordomoa.
Eskuinean, korbata eta praka motze-
kin **Ignacio Juldain** daukagu, De-
bako hondartzan itota hil zen mutila,
eta ezkerralden dauden korbatadun
biak, aurrekoa **Julio Barandiaran**
“**Mentu**” eta atzekaldekoa, berriz,
Isaias Abarrategi, Argentinara joan
eta bertan hil zena.

**ARRASATE
PRESS**



77 05 65

ZALEKI


Urdaitegia
Oilaskotegia

Bañez Doktoera, 12
ARRASATE Tfnoa: 79 48 34

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

Gurutzegrama




Horizontalak

1. +2B= Santu izeneko auzo eta kale
4. (Ald.) Honela edo horrela
8. Pasadizo
10. (Ald.) Itxura
11. Azkena bi aldiz
12. Ohizkoak
14. Mesprezu
15. Gizon izena
16. *Deri*ko kontsonanteak
17. Mahometarren jainkoa
18. Araban azaldu den indar politikoa

Bertikalak

1. Putrea
2. Ikus 1 horizontala
3. Neurtuz lortzen da
4. Edadera
5. Esnatu aurretik
6. Mantsotu
7. Haznahi
9. Anker
13. Titanioa
15. Zilarra



JUAN BAUTISTA AGORRIA

BIDEO-EMANALDIA

Batman

Tokia: Monterron kultur etxea


Eguna: apirilak 25, larunbata

Ordua: arratsaldeko 4.30etan

Prezioa: 50 pezeta

Sarrerak: Monterronen

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea



ALBANIAREN KONKISTA



ACHE
FRONTERA FILMS IRUN S. A. - ren produkzio bat A. AMIGO-k eta L. CALPARSORO-k egina
ALFONSO UNGRIA-k zuzendua
XABIER ELORRIAGA CHEMA MUÑOZ KLARA BADIOLA
WALTER VIDARTE ENAUT URRESTARAZU

Mondragol!

Gernika-Mondra

Igandean
9.15etan

Txatxaran

Leintzko bertsoesko-
lako bertsolari
gazteak

Asteazkena
9.20etan

ATBketan

Gure lehiaketa.
Sariak eta umorea

Ostegunean
9.20etan



Telebegi

Expoa

Estatu Espainoleko telebista publikoei ipurdia ikusi zaie oraingo honetan.

Nik, edade kontuagatik, ez dut Francoren garaiko oroitzapen handiegirik ezta garai haietako telebista gubernamentalaren ezaguera minimorik ere ez, baina zoritxarrez, maiz ikusi izan dtutu nodo ospetsu haiek zineetan eta, zin dagit, Expoaren inguruan montatutako parafernalia garesti horrek telebistan izan duen oihartzunak asko gogorazi didala Francoren garaiko nodoei.

Erreinuko subditoak pantailari begira, bestaldean, errege, agintari eta urtean 13 milioiko soldatak dituzten gaintzeko tripaustelak. Ez dago kritikarik, kazetariak soili ikusten dutena transmititzera mugatzen dira atzean zer dagoen ikertu eta erakutsi barik. Eta zer dagoen atzean? Bilioi bat peztatoko diru gastua, 2 milioi térdi langabetu dauden estatuan, erabat kritikagarriak izan daitezken ekintzen izenean egin da Expoa, Amerikaren deskubrimetua, hanegindako kulturen zapalkuntza etb....

Baina, kontuz, ez dira soilik telebistak izna honela jokatu dutenak, irratia eta prentsan ere antzerako tratamendua izan du eta Expok. Nik ez dut esaten honekin Exporen aurkako jarrerara sutsua izan behar dutenik, baina gauza kritikagarriak ere kritikatu egin behar dira eta horrelakoak hor ere ugari daude.

Hau ez da deskubrimenduen garaia (Expoko lema). Dirigismo informatiboaren garaia da.

Ave, A.V.E.

ANDONI URZELAI

Programazioa

26

IGANDEA

9.15. **Mondragol.** Gernika-Mondra partiduaren laburpena. Aurkezlea: J.L. Ezkurra.

28

ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.** Al-bistegia.
8.20. **Erreportaiak.** Koldo Rodriguezekin aktualitateko bi gai jorratuko ditugu.
9.50. **Asteko zinea:** Albaniaren konkista.

30

OSTEGUNA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.** Albiste-emanaldia
9.20. **ATBketan.** Gure lehiaketa: umorea, sariak, herritarrak protagonista Anne Igartibururekin.
9.50. **Asteko zinea:** Albaniaren konkista.

27

ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.** Egunean zehar jasotako albisteak.
9.20etan, **Mondra Sport.** Gerardo eta Mikelekin, kirola protagonista nagusi.
9.50. **Asteko zinea:** Albaniaren konkista.

29

ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.**
9.15. **Txatxaran.** Maider Egués bertsolari gazteekin jardunean.
9.50. **Asteko zinea:** Albaniaren konkista.


1

OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.** Arrasateko azken notiziak
9.30. **Ostiral musikala.** Marta Izagirrearen eskutik, musikaren mundua aztergai.
9.50. **Asteko zinea:** Albaniaren konkista.



OPEL ASTRA BERRIA



Puntuantze Injekzio Astramotore-serie berria, potentzia handiagoa cm³-ko.

POTENTZIA
ADIMENTSUA

*Imajinatu! Opel Kontzesionariak
Opel Astra berriaren potentzia
egiaztatzen gombidatzen zaitu.*

*Beti zurea,
Opel Astra.*



M.CANN

Imajinatu Astra motore berrien posibilitateak. Imajinatu 82tik 150 CV-erainoko potentzia adimentsua. Imajinatu, zeure ekonomian pentsatzen duen potentzia, eta eraginkorra, azken-azkeneko. Puntuantze Injekzio Sekuentziala duena. Ekologiaren adiskide, 3 bideko Katalisatzailea integratuta. Imajinatu, potentzia adimenarekin bat eginda. Opel potentzia duzu.

Gidatzeko atsegina dagoeneko ez da zilindrada-kontua, adimen-kontua baizik. Egiazatu zeure Opel Kontzesionari Ofizialean. Gombidatua zaude.

OPEL

BADAZU OPEL ASTRA-RIK 1.547.000 PZTA.*

OPEL ASTRA, ALEMANIAKO INJINERUTZA ETORKIZUNERAKO

* Fabrikatzeileak gomendaturiko prezioak (Penintsula eta Balearretarako), garraioa, BEZ eta emate-aurreko gastuak barne. Kopuru handiko salmentak ere bai. Eska informazioa zeure Opel Kontzesionari Ofizialari eta finantziazio eta leasing-erako, ez ahaztu Opel Credit, Opel Leasing eta Opel Renting-en baldintza paregabeak.

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako

kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETAn

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tèl. 79 62 65



OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK ESPERIENTZIAZ.